

PRENTSA OHARRA

UZTAILAK 17 ETA 18AN, EMAUS GIZARTE FUNDAZIOAK UDAKO IKASTARO BAT ANTOLATU DU DONOSTIAN, EKONOMIA ZIRKULARRERAKO TRANTSIZIOAREN AURREAN EHUNGINTZAK DITUEN ERRONKEI BURUZKOA

Donostia, 2025eko uztailaren 16a Datorren uztailaren 17an eta 18an, Donostiako Miramar Jauregian **“Moda eta iraunkortasuna: ekonomia sozialaren eta zirkularraren erronkak ehungintzaren sektorean”** ikastaroa antolatu du Emaus Gizarte Fundazioak, EHUKo Udako Ikastaroen baitan. (**Ikastarorako esteka:** <https://shorturl.at/GAJv>)

Ikastaroaren helburua ehungintza sektoreak aurre egin behar dien erronka nagusiei buruz hausnartzea eta eztabaidatzea da, ingurumen-premia gero eta handiagoa eta arau-aldaketa sakona nagusi diren testuinguru batean. Ehun-hondakinei buruzko Europako direktiba berria 2025eko urtarrilean indarrean jartzea inflexio-puntu garrantzitsua izan da sektorearentzat, ekoizpen-, merkataritza- eta gizarte-ereduak berrikustea behartu baitu.

Programaren barruan, Erretereriako ehun-tratamendurako zentroa bisitatuko da.

Hitzaldiak, mahai-inguruak, networking-saioak eta Erretereriako tratamendurako zentrua ere bisitatuko dira, azken hau Emaus Gizarte Fundazioak eta Kooperak kudeatzen duten aldi-baterako enpresa elkarteak kudeaturikoa.

Erretereriako tratamendurako zentrua kontsumo osteko ehungintzaren kudeaketa integralean espezializatuta dago, eta urtean berrerabilpena bideratutako 2.400 tona prozesatzeko gaitasuna du. Bisitan, parte-hartzaileek hurbiletik ezagutu ahal izango dituzte ehunen sailkapenari, diagnostikoiari eta aprobetxamenduari buruzko prozesu berritzaileak, hondakinak murrizteko eta produktuen balio-bizitza luzatzeko aukera ematen dutenak. Ekonomia zirkularraren adibide praktikoa bat, ingurumenean eta gizartearen eragina duena, lantegiko lanpostu gehienak gizarteratzera eta laneratzerara bideratuta baitaude.

Ekosistema zirkularraren erreferente diren ahotsak parte hartuko dute ikastaroan

Hausnarketa partekatua ikuspegi askotatik aberasteko intentzioz, ehungintzako eta ekonomia zirkularreko ahots ezagunenetako batzuk izango ditu ikastaroak, estatukoak zein tokian-tokikoak. Hilari lanetan pertsona hauek parte hartuko dute: **Mónica Pedreira**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko zuzendaria; **Olga Martín**, ACLIMAKo zuzendari nagusia, trantsizio ekologikoan erreferente den klusterra; **Alberto Fernández**, RE-VISTE enpresako eragiketen zuzendaria; **Nati Yesares**, AERESSko berrikuntza eta ekonomia zirkularreko arduraduna; **Estibaliz Sáez de Cámara**, EHUKo iraunkortasun instituzionaleko zuzendari nagusia; eta **Mari Luz Ferro** eta **Pedro Carrasco**, Koopera-ko koordinatzaile nagusia eta harreman instituzionaletarako arduraduna. Beraiekin batera, **Gema Gomez** Slow Fashion Next-en bultzatzailea eta **Sònia Flotats** Moda en Movimiento erakundearen sortzailea izango dira.

Emaus Gizarte Fundazioaren izenean, **Aitziber Zubillaga** zuzendari nagusia eta **Ane Salaberria** ingurumen arduraduna izango dira hizlari.

EMAUS GIZARTE FUNDAZIOARI BURUZ

1G80an sortu ginen, Errenterian, gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen enplegu aukera bat eskaintzeko asmoz, ekonomia zirkularraren esparruan. **Lau hamarkada baino gehiago igaro ondoren, 480 laguneko lantaldea duen Fundazio bat gara. Horietatik 360 Fundazioan ari dira lanean eta 120 Gizarteratze Enpresetan.**

Komunitatea eraldatzea bultzatzen dugu, herritarren pentsamendu kritikoa sustatzen duten sareko prozesuak eta proiektuak aktibatuz, ingurune sozial, kultural eta ekonomiko bidezkoagoa, inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztiak eta ingurumena zainduko dituen.

Gainera, zaurgarritasun eta bazterketa egoeran dauden pertsonen laguntzen diegu sozializazio prozesuan, ekonomia zirkularraren bidez gizarteratzeko, gaitzeko eta laguntza soziolaborala emateko gizarte zerbitzuen bidez, pertsona horiek lan merkatu normalizatuan sar daitezen, gizarteak arlo horretan aurrera egin dezan.

Ehungintzaren kudeaketari dagokionez, gure jarduerak ekonomia zirkularreko inpaktu jasangarri handiko eredia irudikatzen du. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 201G-2030 Plan Integralarekin bat etorritik —zeinak, 4. helburuan, hondakinak berrerabiltzeko prestakuntza sustatzen baitu, hala nola ehungintza, tamaina handiko hondakinak eta tresna elektriko eta elektronikoak (TEEH)—. Fundaziotik funtsezko eragile gisa finkatu gara hondakinak aukera bihurtzeko, eta gure lana bi helbururekin lerrotatu dugu: klima-alaketaren eraginak arintzea eta zaurgarritasun egoeran dauden pertsonentzako lan-aukerak sortzea.

Prentsarako kontaktua

Aiala Fernández: aiala.fernandez@emaus.com Sakelekoa:

604559391

Informazio gehiago: www.emaus.com eta gure sare soziala

